

Euzkeldunei Euzkeraz

Neure entzule maiteak Juan Bautista Eguzkitzaren hitzaldiak

Igone Etxebarria

Kistar-irakaskuntza zabaldundia
deitxon Abade Eguzkitzaren
BATZAR NAGOSI EGUNEAN
EGUZKITZA ' TAR ABADEAK
egin eban itzaldija
1914 G. GARAGARILLA 1.º

Juan Bautista Eguzkitza (1875-1939) Lemoan jaio eta hil zen. Abade ikasketak egin, abadegaïen irakasle izan zen eta euskalgintzan eragile bizia. Lehenengo hamabi euskaltzain osoen arteko bat da, Euskaltzaindiaren ibilbidea hasi zenean, han zen Eguzkitza, ordurako entzute handia hartuta zegoena. Lekeition bizi izan zen luzaroan (1904-1937), eta bertan irakaslea izan zen Latinitate Katedran, Uribarren-Abaroa fundazioan. Handik izango zuen Azkuerekin ezaupidea ere.

Euskaltzalea izanik, asko parte hartu zuen euskal kulturaren, erlijio argitalpenetan eta euskara gaietan, hitzez zein idatziz. Aldizkarietan egin zituen bere idatzietako asko, besteak beste *Euzkadi*, *Jaungoiko Zale* eta *Ekin* aldizkarietan.

Bera izan zen euskarazko lehen saiakeraren egilea: *Gizarte auzia* (1935). Orduko gai sozialak hartu zituen idazgai eta, berak kristau ikuspegiari lehentasuna eman arren, hurbiletik jarraitzen zituen bere garaiko gizarte mugimendu eta pentsaera sortu berriak.

Sermolari gisa ezaguna izan zen, bai herritar entzuleen artean, bai gainerako esatari edo sermolariren artean. Gasteizko Seminarioan Erretorikako irakasle ibili zen, ondo menperatzen zituen hitzaldietarako teknikak: hasiera-tesia-ondorioa egitura, ahotsaren modulazioa lortu



nahi den efektuaren arabera, eta hizkuntza bera ere bai.

Hitzaldi asko idatzita utzi zituen, inoiz argitaratu barik. Horietatik hautaketa egin eta horrela osotu da *Neure entzule maiteak* izeneko liburua, izenburuan hitzaldion hasierako esaldia jasotzen dela.

Bere hitzaldietan agerian azaltzen du erretorika-gaiaren gaineko ardura, arlo teorikoan zein praktikoan. Horri gehitu behar zaio euskararen aldetik daukan gaitasuna eta egiten duen ahalegina. Esapide jator-jatorrak eta esaldi-egitura korapilatsuagoak ederto uztartuta aurkituko ditugu. Hiztegi aldetik ere neke handia hartuko zuen kontzeptu guztiak euskaraz adierazi eta aldi berean entzuleek ulertzeko moduan esateko. Izan ere, oso gogoan dauka entzule dituenak herriko euskaldun ez ikasiak direla. Haien hitz egiten du, haiek ulertzeko.

Batek baino gehiagok pentsatuko du zertarako gaur egun sermoi liburua bat argitaratu. Ba ahozkotasuna hain garrantzitsua dugun garaian honetan, zer ikasi asko aurkitu dezakegu Eguzkitzaren idatzietan. Berak esateko idazten zuen, jendeak entzunez jasotzeko zela oso presente zuela. Hainbat adibide eredugarri izango ditu begien aurrean testua arduraz irakurtzen duenak. Ahozko komunikazioa euskaraz nola landu ikasteko baliabide ezin hobea dugu, hizkuntzaren tradizioari uko egin barik gainera.



Neure entzule maiteak (2013)
JAREIN bilduma, Labayru
Ikastegia

Juan Bautista Eguzkitza Meabe

(Lemoa 1875-1939)

Eguzkitza euskal literaturan arlo askogaitik da ezaguna, baina gehien-gehien Gizarte auzia liburuagaitik. Izenak berak erakusten dauanez, gizarteko gaiak darabilz, ugazaba eta beharginen arteko gorabeherak, eta hori euskeraz erabili eban lehenengo idazlea da.

Juan Bautista Eguzkitza Lemoan jaio zan 1875ean, Tallerretako auzoan egoan errota txiki bateko semea da. Gaztetan hasi zan abaderako ikasketak egiten: Larran latina ikasi eban, Gasteizen Filosofia eta Teologia. Han abadetu zan 1899ko Santo Tomas egunean, eta Gabonetan Lemoan emon eban Meza barría. Gero be Gasteizen jarraitu eban Teologia-ko Lizentziatura atara arte. Orduan irakasle be bazan, Retorika eta Gramatika erakusten utsiezan abadegai gazteagoei.

1904an Lekeitiora bialdu eben abade-ikas-tegi txiki bat eratzeko. Eta behin hara joanda, han egon zan gerrara arte. Lekeition egoala hainbat gauza egiten ebazan: abadegaiei eskolak emoten utsiezan; herririk herri hizlari ibiltan zan; euskaltzaina zan 1919tik, Euskaltzaindiaren sortzaileetako bat dogu; eta aldizkari eta egunkarietarako artikulu asko idatzi ebazan.

Gerra hasi zanean batetik bestera ibili zan, kartzelan be bai. Lemoara bueltau zan gero,

baina adore barik eta makalduta. 1939ko abuztuaren 12an hil zan.

Asko idatzi eban Eguzkitzak, bai artikuluetan bai liburuetan. Hona hemen haren lanak: Garbitokiko arimaen illa (Bilbao, 1915) itzulpena. Andra Mariaren loretako illa (Zornotza, 1919), liburu hau asko be asko erabili izan da. Argi donea (Zornotza, 1933), berez Prantzisko Balzolak gipuzkeraz egindakoa zan, eta Eguzkitzak bizkaieraz ipini eban. Gizarte auzia (Zornotza, 1935). Liburu honek 35 atal daukaz, eta argi eta modu didaktikoan azalduten dauz sozialismoa eta komunismoa, gizarte-arazoaren susterra zein dan, Marxen pentsakera, mar-

rea aho-minetan bizi da, eta erabili egin behar da hil ez daiten. Ganera, hizkuntza ohiturakaz batera hartu dogu gure aurrekoengandik, eta gauza biak ezin dira banandu, bata besteagaz osotzen da, eta ostantzean galdu egingo dira. Ikusten eban, ostera, euskerea batu beharra, batetik bestera ibili orduan eta idatzikeran danok aitua ahal izateko.

1975ean, jaio zanetik ehungarren urteurrena zala-ta, omenaldia egin eutsien Lemoan, Bizkaiko Foru Aldundiak, Euskaltzaindiak, Lemoako udalak eta parrokiak eratuta. Omenaldi haretan oroitarri bat ipini eben eliza ondoan ekintza haren gomutagarri.



Euskaltzaindiaren bilera, XX. mendeko bigarren hamarkadan Ezkerretik eskuinera. Eserita: Juan Bautista Eguzkitza, Bonifazio Etxegarai, Resurrección María de Azkue, Georges Lacombe. Zutik: Orixo, Martin Landerretxe, Seber Altube, Julio Urkixo, Raimundo Olabide. (Euskaltzaindiko Azkue Bibliotekan kontsultagai.)

xismoak eta kristautasunak ezin dabela bat egin, eta orduan pil-pilean egozan beste gai batzuk. Halango gaiak erabilten lehenengoa izategaitik oso ezaguna egin da.

Eguzkitza Jaungoiko-zale aldizkaria sortu zanetik zuzendarietako bat izan zan. Ekin-en be asko idatzi eban, eta beste aldizkari batzutan be bai: Euskera, RIEV, Yakintza, Euzkadi, Euzkerea. Batzutan gatzizena erabilten eban artikuluak sinatuteko: Lemoatarra, Erri, Errizale.

Sermolari onaren fama euki eban, herri askotatik deitzen eutsien sermoiak egiteko, eta halango asko idatzita itxi ebazan, argitaratu barik bada be. Horreetatik aukera bat egin eta 2013an argitaratu eban Labayru Ikastegiak Andres Urrutiak ondutako edizinoa: Neure entzule maiteak.

Baina euskerearen egoera eta geroagaitik ardua handia erakutsi eban Eguzkitzak. Euske-



Lekeitiarrak gerran. Zertzelada batzuk El tesoro del «Vita»

Iñaki Goigona

Gure herriaren historia ez da liburutuan oparoa. Guk dauzkagun artxihoak beste nonbait baleude, beste nonbaitekoak izanda, jakina, dokumentazio horretaz baliaturik hamaikatxo lan izan-go lirateke argitaratuta. Baina gurean, honetan behintzat, mehe gabiltza. Orokorrean gutxi idatzi da (dugu) gure herriaz eta bertan iraganen gertatuaz.

Orokorrean bakarrik ez, partikularrean ere bai. Kasurako: gerra zibilaz, 36koaz, apenaz daukagu ezer gurean gertatuaz eta gurek, lekei-

tiarrek, bizi izandakoez.

Eta ez hemen eta gureen artean

ezer gertatu ez zelako. 36ko irailaren azkenetatik

37ko apirilaren azkenetara arte borroka frentea hementxe bertan izan genuen, urrunago joan barik, Asterrikan. Aurretik eta geroago etorri ziren errepresioa, bonbardaketak, borroketara joateak, erbeste-teratzeak... gerrak dakartzan kalamidade guztiak. Ba, guzti horretaz, gauza handirik ez.



Vitako tripulazio ia osoa, yatean bertan.



Jose Ordorika, *Vita*ko kapitaina.

Horregatik da pozgarria, pozgarria esaterik bada gerra kontuez ari naizela, denbora gutxiren barruan Lekeitioko herritarren kontuak luze eta zabal hartzen dituzten liburu bi liburu-dendatan ikustea, bai batean eta bestean gaia Lekeitio eta lekeitiarrak baino zabalago izanda ere. Liburu bi hauen zehaztasunak hauexek: Francisco Gracia Alonso eta Gloria Munillaren *“El tesoro del “Vita”*. *“La protección y el expolio del patrimonio histórico-arqueológico durante la Guerra Civil”*, Universitat de Barcelona, Bartzelona, 2013. Anxo Ferreiro Currásen *“Consejos de guerra contra el clero vasco (1936-1944) La Iglesia Vasca vencida”*, Intxorta 1937 Kultur Elkarte, Oñati, 2013.

Vita eta Errepublikako diruak

Vitaren berri lehenengoz Koldo San Sebastianek Muga aldizkarian aspaldi argitaratu zuen artikulu baten izan nuen nik. Harrituta irakurri nuen han zetozenak eta bertan irakurri nituen lekeitiarren kontuak. Artikulua amaitu eta batera amari galdetu nion ea artikulu hartan esaten zirenen berri zer zekien, Errepublikako diruez hasi zitzaidan berbetan. Izan ere *Vita* yatearen historia Espainiako Errepublikaren diruen historia, Moskuko errearen historiaren bestean, interesgarria eta jakin-garria da.

Gerraren amaiera luze barik ikusten eta sumatzen hasi zirenean Errepublikako Gobernuan, bere buru zen Juan Negrinek hainbat ondasun

erbestera ateratzeko agindu zuen, ordurako estranjerian ziren diruekin batzeko. Negrinen asmoa zen altxor horrekin atzerriraturiko errepublikanoen beharrak arintzen laguntzea. Altxorra, hasiera baten, Frantziara atera zen, herrialde horretara joan zelako gerra amaitu ondoren exiliatu olderik handiena (500.000 errefuxiatuainoko kopuruak aipatzen dira 1939ko otsailerako, errepublikano gehien erbesterratu zenerako). Baina Frantzia ez zen lurralde segurua honako altxor bat gordetzeko. Izan ere, 1939ko otsailaren 25ean Frantziako Kanpo Arazoetarako ministroak Léon Bérard senataria bidali zuen Espainiara Francoren ministro zen Francisco Gómez Jordanarekin negoziatzeko lasterreko baten gerran nagusituko zen Espainia berria errekonozitzeaz. Negoziaketon ondorioz Frantziak Francoren Espainia errekonozitu zuen eta, ondorioz, Espainiako Errepublikak Frantziaren begietarako existitzeari utzi zion. Honek guztiak esan nahi zuen, ordura arte Errepublikak Frantzian kudeatzen zituen ondasunak guztiak Hexagonoak Francoren eskuetan jarriko zituela, tartean Negrin presidenteak errefuxiatuak laguntzeko atera zituenak.

Ataka honetan Errepublikako Gobernuari ez zitzaion besterik gelditu ondasunok hartu eta lurralde seguruago batera garraiatzea baino. Nora eta Mexikora, garai hartan eta ondorengo urteetan zehar Espainiako Errepublika onartzen zuen eta errekonozitzen jarraituko zuen lurralde ia bakarra. Drama honen libretoan momentu honetantxe sartuko dira lekeitiarrak eszenan, tropelean gainera. Izan ere, Negrinek konfiantzazko tripulazioa behar zuen altxorra Mexikora eramateko eta horretarako gerra hasieran, Negrin bera, Ogasun ministro izan zen denboratik ia bere zerbitzura ziharduten marinelei agindu zien enkar-gua. Marinelok, gehienak behintzat, gerra aurrean Pasaiaiko PYSBE bakailaotara jarduten zuen enpresakoak ziren eta gerra denboran Mediterraneoan ibilitakoak Negrinen aginduetara Cartagena eta Sobiet Batasuneko portuen artean arma eta bestelako garraioan.

1939ko otsailean Negrin presaka zebilen Errepublikako urreok Mexikora eramateko. Horretarako lekeitiar birengana jo zuen Marino Gamboarengana eta José Ordorikarengana. Lehenengo, filipinarra zen jatorriz, han aberastua eta hemen itsas negozioak zituena. Lekeitien Talako zelaian dagoen Gurutz Alde etxean bizi zen. Gerra denboran bere ardurapean egon ziren zenbait nabigazio enpresa, bai Eusko Jaurlearitzaren jabetzakoak, bai Errepublikaren jabetzakoak. Negozio horretarako aproposa zen, ez bakarrik horretan aditua zelako, filipinarra zelako baino. Honekin esan nahi da Ameriketako Estatu Batuetako naziotasuna zeukala, garai hartan Filipinar Uharteak AEBen domeinu baitziren.

Guzti honetaz baliaturik, Negrinek Gamboari eskatu zion itsasontzi apropos bat erosteko misio sekretu bat burutzeko. Gamboak Ingaltarran erosi zuen yate bat horretarako eta *Vita* izenez bataiatu. Kapitain, José Ordorika izendatu zuen eta tripulazio gorago aipatu ditudan lekeitiarrak.

Horretara prestatuak, azken momentuan gehitu zitzaizkien batzuekin batera, abiatu ziren Mexikorantz.

Hain zen sekretua *Vitaren* misioa, Europatik atera orduko susmoak barra-barra zabaldu ziren eta, ondorioz, ataka estuan jarri bidaia. Edozein modutan, Veracruzera heldu zirenerako susmook hasi eta ugaritu besterik ez ziren egin. Kontuak gehiago nahasteko, kargaren kargu egin behar zen Negrinen agentea ez zen Veracruzera agertu eta Ordorika kapitaina estutu egin zen. Hain karga arriskutsua eskuetatik kentzeko, Ordorikari ez zitzaion beste biderik otu Indalecio Prieto, Errepublikako

ministro ohia eta buruzagi sozialista bilbotarrarengana joatea baino. Prieto eta Negrin gerra hasi eta gero ere adiskideak izanak baziren ere, ordurako, gerran zer jarrera harturen gainean haserretuta zebiltzan, elkar ikusiezinean bizi ziren, batez ere Prieto Negrinenganako.

Ordorikak eraman zion enkargua Prietok Negrin menperatzeko edo erbesterauak bilbotarraren aldera jartzeko ezinbesteko tresnatzat hartu zuen eta baliatu. Ordurako zatituta zeuden espainiar errepublikanoak are eta zatituago utziz. Baina hori beste historia bat da, Vitaren ondorengoa. Hemen aipatu nahi dudana da lekeitiar marinel batzuk jokatu zuten papera pasarte garrantzitsu hartan. Behar bada, bigarren mailako papera, baina ez edozelakoa kontuan izanda Vitaren kontu hark izan zuen garrantziaz jabetu ezker.

Liburua, harrigarria bada ere, prehistorian aditu baten obra da eta ez gerra zibilaz aritzen den bate-na. Edozein modutan, liburuko gai nagusia Vita yatean garraiatu zen altxorra da eta honek bai badu arkeologiaz zerikusia, hain zuzen ere ondasun hauek altxor historiko eta arkeologikoak baitziren: urrezko txanponak, bitxiak, eta abar, Museo Arkeologiko Nacionalean eta aristokraziaren jauregie-tan arpilatuak.

Gerraren beste aurpegi bat ezagutu nahi duenarentzat eta lekeitiar batzuren gerrako ibilerak eza-gutu bahi duenentzat liburu aproposa.

Hoje "Vita"

Viaje de Southampton a Veracruz

Salida de Southampton dia 28 de Febrero 1939
Alpda a Veracruz dia 23 de Marzo 1939

Observaciones hechas durante la travesia

Amador
Capitan

Southampton-dik irten eta Veracruzera bidaiari Ordo-rika kapitainak osatu zuen Vitako nabigazio liburua.

CREW LIST

Nos.	NAMES	CAPACITY	DATE OF JOINING	WAGES PER MONTH	REG. NO. OF TICKET	DATE OF LEAVING	REMARKS
	Loi Ordorika	Capitan	Nacio				
37	Isaac Echevarre	Oficial	Aldekoa				
38	Loi Antanas Pillas	2 ^a	Nacio	(Munis)			
39	Rutais Broward	2 ^a	Jonako				
40	Salvador Garcia	Subcarago	No es unia	(Rep) eta in Mexico			
41	Rafael Jorraga	Contramaestre	Aldekoa	(Enketa en M. Gumbon			
42	Agalio Jorras	Telegrafista	Rep	eta in Mexico			
43	Joseta Jorras	Marinero	Nacio	navaja en el vapor San Rafael			
44	Joseta Jorras	"	"	lurte en M. Gumbon			
45	Joseta Jorras	"	"	Diarios in unia			
46	Joseta Jorras	"	"	Jonako fue al puerto			
47	Joseta Jorras	"	"	No es unia (Socialista)			
48	Joseta Jorras	"	"	"			
49	Joseta Jorras	"	"	"			
50	Joseta Jorras	Diagramador	Nacio	Intep			etara Veracu
51	Joseta Jorras	"	"	"			
52	Joseta Jorras	"	"	"			
53	Joseta Jorras	"	"	"			
54	Joseta Jorras	"	"	"			
55	Joseta Jorras	1 ^a Cocinero	"	"			
56	Joseta Jorras	2 ^a	"	"			
57	Joseta Jorras	1 ^a Mag ^o	"	"			
58	Joseta Jorras	2 ^a	"	"			
59	Joseta Jorras	2 ^a	"	"			
60	Joseta Jorras	Mayordomo	"	"			
61	Joseta Jorras	1 ^a Cocinero	"	"			
62	Joseta Jorras	2 ^a	"	"			
63	Joseta Jorras	2 ^a	"	"			
64	Joseta Jorras	Administrador	"	"			
65	Joseta Jorras	Mayordomo	"	"			
66	Joseta Jorras	2 ^a	"	"			

Vitako crew list edo tripulazio rola. Bertan ageri dira Mexi-kora bidaiari egin zuten guz-tien izenak.

Consejos de guerra contra el clero vasco

Iñaki Goigona

GERRA GALDU ZUTEN ABADAEK

Anxo Ferreirok, komentatu nahi dugun liburuaren egileak, dio zelan Ferrolgo artxibora joan zenean eta eskatu gerran eta ostean abadeen kontra egin ziren epaiketen txostenak, artxiboko arduradunek esan ziotela gerran apaizen kontrako epaiketarik ez zela izan. Ferreirok argitu behar izan zien, baietz, hainbat eta hainbat euskal abadek errepresioa sufritu zutela, eta ez edozelakoa gainera. Ferreiroren liburua horixe da gerran eta gero euskal elizaren zati handi batek sufritu behar izan zuen kalbarioa. Beraz liburu hau ere ez da zuzenean Lekeitioki buruzkoa, baina lan honetako XXV. kapituluaren zati bat Lekeitioko parrokiaren gainekoa da. Horregatik dakargu hona.



Domingo S. Sebastian

Dozena bat urte ingurutik hona bolo-bolo dabilen kontua da memoria historikoarena. Neurri handi baten mugimendu hau, eta berari loturiko historiografia, historialari amateurrek egin da, unibertsitateetatik eta antzeko akademietatik urrun dabilen hiritar xumeek egindakoa. Mugimendu honen beste ezaugarri bat da bere interesa orain arte bazterreko gaiak izen diren kontuetan jartzea. Hala, baitaila handietatik urrun, buruzagien gorabeherak albora lagata, jende arruntarengan jarri du, esan dugun legez jende arruntez osaturiko, mugimendu honek bere objektua, aztertzeko gaia.

Ezaugarri oiek oso-osorik betetzen ditu Ferreirorenak. Batetik egilea abade ohi bat da eta ez historialari profesionala, eta, bestetik, gerra galdu zuten abadeengan ipini du bere ikerketaren asmoa.

Ez da gai hau kontuan hartzen duen lehen liburua, baina bai aspaldian argitaratzen dena. Horretaz gain, badu beste meritu bat, eta zera da: orain arte erabili bako dokumentazioa jorratuz idatzita dagoela. Izan ere hor du bere balioaren zati handi bat, hau da, plazara ekarri izana horrenbeste dokumentazio berri, abadeon kontra burutu ziren epaiketa prozesu guztiak edo mordo handi bat behintzat. Izan ere, Franco hil ostean Euzko Apaiz Taldeak argitaratu zituen liburuak kaleratzetik apenas izan dugu ezer berririk. Ikusten da honetan talde baten historia sarritan talde horretako kideek idazten dutela edo talde horren ideien kontra dihardutenek. Bistakoa da, bestalde, abadeen kopuruak behera egin duela gure artean eta gelditzen diren gehienak adinekoak direla, esan nahi baita honekin abadeek ez dutela nork idatzirik.

Gorago esan legez liburu hau dakart hona, orokorrean interesekoa delako eta Lekeitiotik begiratuta aparteko esanahia duelako.

Esanda bezala, liburuaren kapitulu bat Lekeitioko parrokiaren kontra frankistek zabaldu zuten errepresioaren gainekoa da. Izan ere, orduan denboran Lekeitioko parrokiaren ziran 8 abadeetatik 5 (Juan Cruz Lopez de Larruzea, Juan Bautista Eguzkitza Meabe, Teodoro Labauria Laka, Pedro Uriarte Zabala eta Luis Angoitia Uriarte) epaitu egin zi-



Don Domingo ume koadrila batekin Ermuan, 1935ean.

tuzten. Eta ez hori bakarrik, ondasunak lapurtu eta euren eliz karre-rak hondatu. Eguzkitzaren kasuan bere Lekeitioko Latinidade eskola-tik urrundu eta denbora gutxira hil zen Lemoako familiaren etxean.

Komentatzen dihardudan liburuan ez da bakarrik Lekeitioko parrokiaren gainean, gure herriko abadeez ere hitz egiten da, hain zuzen Lekeitiotik kanpoko parrokiaren ziren lekeitiar apaizei buruz. Horrela, Ermuko parrokiaren zegoen, Domingo San Sebastian (Don Domingo) abadearen espetxealdia eta prozesuaz ere badihardu liburuak. Kontuan izan behar dugu Don Domingo izan zela frankistek epaiketa baten heriotza zigorrera kondenatu zuten abade bakarra.

Horra, irakurle liburu eder bi gure iragana ezagutzeko baliokoak eta bide batez disfrutatzeakoak, esanda legez gozatu baliteke gerrako kontuak jakinez.

CONSEJOS DE GUERRA CONTRA EL CLERO VASCO (1936-1944)

La Iglesia Vasca vencida



Anxo Ferreiro Currás



Anxo Ferreiroren
Consejos de guerra
contra el clero vasco
liburuaren azala.